

BERBAROTARRA

6. alea. 1995eko abendua


Euskara elkarteak elkartzeko bidean

Berbaroko boletinaren azkenengo zenbakian Euskara Elkartearen Topagunearen berri eman genizuen. 1995eko urtarrilaren 15ean Euskal Herri osoko euskara-elkartei dei egin zitzaigun Gaztelun (Tolosan) egin zen I. Euskara Elkartearen Topaketara. Ordutik, ia urtebeteko ibilbidearen ondoren, topagune horren oinarriak proposatu, eztabaidatu, landu, finkatu, borobildu eta idatzi egin dira.

Topagunearen helburua erraza da: batetik, euskara-elkarteen arteko harremanak sakondu eta zabaldu nahi dira eta, bestetik, elkarte bakoitzak dituen baliabide ekonomikoak eta pertsonalak koordinatu eta etekin handiagoa atera nahi zaie. Hori guztia, jakina,

euskara-elkarteen behar praktikoei erantzuteko. Berbaroko Zuzendari-

topagunearen nondik norakoak zehazteko eratu zen taldean ordezkaria izan du hasierahasieratik. Beraz, topagunea nola gauzatu den eta hemendik aurrera egin beharreko ahalegina ondo baino hobeto ezagutzen ditu.



Jardun, Euskalerriko euskara elkarteetarako bat.

Hori dela eta, Berbaroko Zuzendaritzak Euskara Elkartearen Topagunea eratzeko landu den proiektua onartzea eta Berbaroko Bazkideen Batzar Nagusian topagunean parte hartzeari baietza ematea proposatuko du. Azken berba, beraz, bazkideok izango dugu.

tzak interes handia izan du proiektu horretan eta

Udal Euskara Kontseiluko lehendakari berria.

Euskara Kontseiluko lehengo lehendakariak, Andonik, denbora faltagatik utzi egin dio eginkizun horri. Bere ordez Ima Agirre sartu da kontseiluan eta lehendakari izendatu dute.

Ima, udaleko lorazaina da lanbidez eta Berbaroko sentsibilizazio taldean

dihardu lanean. Horrez gain Berbarok "Hizkuntz Normalkuntzarako Famili programa" delakoan duen ordezkaria ere bada.

Imak berak esan digunez, euskara Zerbitzua sortzea izango da, lehenasunetako bat.



Bazkideok ez dugu ERAZeko kuota ordaindu behar

Guztiok dakigu ERAZ aldizkariaren egoera ekonomikoa oso eskasa dela. Hasieran aurrikusi eta agindu ziren diru-laguntza batzuk huts egin dutenez, ERAZek ahalegin handia egin behar

izaten du, astero-astero Durangaldeko albisteak euskaraz gure etxeetara helarazteko. Egoera horri aurre egiteko, astekaria etxean jasotzeko dakarren kostua irakurleak berak ordaintzea eskatu zuen ERAZek. Hori dela eta, urteko kuota bat erabaki zen.

Dena dela, Berbaroko bazkideok ez daukagu kuota hori zertan ordaindu. Berbarok urtero diru-laguntza ematen dio ERAZi eta diru-laguntza hori da, hain zuzen, bazkideok ordaintzen dugun kuota. Beraz, zuetako batzuk 2.000

pta.ko kuota horren berri ematen duen gutuna jaso baduzue ere, ez duzue ezer ordainduko eta ERAZ aldizkaria jasotzen jarraituko duzue.

BAGABILTZA

BAGABILTZA

Berbarok diruzaina kontratatu du. Elkarteko eta tabernako diru kontuen ardura Amaia Zarrabeitiak hartuko du. Amaia Zuzenbidean lizentziatua da eta ERAZeko gerentea izateaz gain, tabernako diruak zaindu ditu azken hilabeteotan, Juan Luis Erzilarekin batera. Diru-kontuak argi eta garbi eraman behar direnez, Zuzendaritzak Berbaroren diruak profesinal baten esku uztea erabaki du. Buruko min galanta Amaiak izango duena.



Erregenetan ERAZek ateratako loteriari dirua bueltan tokatu zaio. Beraz zorionak erosi dutenei. Zenbakia honako hau izan da: **86.917**

Taberna gaineko pisua alokatu du Berbarok. Pisua alokatzeko arrazoiak honako hauek izan dira:

-Erazekoak aspaldi ibili dira lan egiteko lokal egoki baten atzetik.

-Guezan Ba gazte taldeari txiki geratu zaio Berbarok Pinondo Etxean duen bulegoa eta, gainera, eurentzako bakarrik izango den lokal baten beharra izan dute.

Kantu-liburuaren 3. edizioa argitaratu du Berbarok. 93. urtean kaleratu genuen lehenengo aldiz eta arrakasta izugarria izan zuenez, bigarrena eta hirugarrena atera dira. Azokan 200 ale saldu dira eta Euskal

Herri guztitik deitzen dute liburua eskatzeko. Norbaitek erosi nahi badu Hitz liburudendan eta Berbaron du salgai.

Sarrionandiarri omenaldi arrakastatsua. Azoka egunetarako prestatu genuen Sarrionandiaren omenezko ekitaldia oso ondo atera zen. Laudorio hitzak baino ez ditugu entzun. Bestalde, parte hartu zuen jende kopurua ikusita, Berbaroren ekitaldirik arrakastatsuenaren izan dela esan dezakegu. Zorionak antolatzaileei.

Berbaro ibiltari

Duela sei urte sortu zen Berbaro. Orduan, eta orain ere, hainbat elkarte izan ditu eredu, bai elkarte egituratzeko, bai diru-iturriak lortzeko, baita ekintzak egiteko ere. Baina, badirudi nolabaiteko izena (ona, askoren ustetan) hartzen ari dela euskalgintzan diharduten pertsonen eta erakundeen artean. Horren ondorioz edo, beste batzuk hasi dira Berbaro bera eredu hartzen. Hori dela eta, azken aspaldian hainbat lekutan ibili dira gure ordezkariak, Berbaroren berri emateko. Adibide modura, hona hemen aurten bisitatutako tokiak: Zornotza, Algorta, Eibar, Elorrio, Urduliz, Santutxu eta Iurreta. Eskaria, batez ere, Bizkaia aldetik datorkigu. Ez daharritzekoa, Berbaro Bizkaiko talderik errotuena dela kontuan hartuz gero.

Kale-neurketa

Duela zenbait hilabete, Berbarok euskararen kaleko erabilerari buruzko emaitzak kaleratu zituen. Emaitza horien arabera, euskararen erabilerak gora egin du Durangoko kaleetan. Hala ere, oraindik oso euskara gutxi egiten da eta alde horretatik asko hobetu beharra dago.

Dena dela, kale-neurketari buruz, Berbarok jaso eta landutako informazioa txosten batean bilduta dago eta norbaitek eskuratu nahi izango balu, Berbarora jo beza.

Gaztetxoek eginiko aldizkaria

Irakaskuntza taldekoek prestatu digute dagoeneko Prentsetan Gabizen 5. alea. Aldizkaria prestatzen ibili diren neska-mutikoak eskola hauetakoak dira: Matienako Herri Eskola, Maiztegi Eskola, Kurutziaga Ikastola eta Landakoko 6, 7 eta 8. mailako umeak.



Aupa lagun guztiok ni naiz Boletina pena da nire gauzak adierazi ezina, niri itxura ematen dabil jende fina baina esku askoren produktu arina naiz eta maite neizu ez izan zikina!

Lehen ordenadora bat nuen nik lagun orain beste batean nago oso urrun. Hau ez da txarra baina hura nuen kutun makina honetan da dena ezezagun ea denborarekin elkar maite dugun!

Berbaro taberna

Eztabaidak eta bi izan ziren Berbaroko Zuzendaritzan taberna hartu behar zen erabakitzeko orduan.

Tabernak bete behar-ko zituen funtzioak argi zeuden hasiera-hasieratik, baina ordaindu beharreko dirua lortzeko modua ikatza baino ilunago. Azkenean, nola edo hala, aurrera egitea erabaki zen eta gaur egun, aurrikusita zeuden bete-behar guztiak oraindik lortu ez badira ere, bidean gaude, duda barik.

Tabernak hiru helburu nagusi ditu: diru-iturri izatea, euskal txokoa egitea eta kultur gune bihurtzea.


1.- Taberna eskuratzeko egin zen inbertsioa oso handia izan zen. Dakizuenez, banketxeari mailegua eskatu zitzaion eta, horretaz gain, bazkideoi 100.000 pezetako

urteko emaitzak neurri berekoak. Beraz, apurka-apurka bada ere, ordaintetako egiteko epeak arazorik gabe betetzen ari gara.

barru, aho-gozagarriak egin ahal izango ditugu bertan.

3.- Azkenik, kultur gune ospetsu bihurtu zaigu taberna. Euskal Herrian gero eta ezagunagoa da, bertan antolatzen diren emanaldiak direla eta. Aurten, besteak beste, honakoak entzun eta ikusi ahal izan ditugu:

Zazpi Eskale
Bat Bitten
Martxoak 31
Xabier Muguruza
Morau
Mikel Markez
D e a b r u a k



diru-laguntza eskatu zitzaigun (hiru urteren buruan bueltatzen hasteko). Ahalegina handia izan zen, eta diotenez lehenengo

2.- Bestalde, txokoa berehala zabalduko da (bazen ordua!). Konponketa-lan batzuk egin eta estatutuak idatzi behar dira. Gero, hilabete inguru

Teilatuetan
Xilipurdikaria kafe-antzerkia
poema-errezitalak
erakusketak, aldioro

Bazkideari

Askotan entzuten dugu Berbarok hau eta bestea antolatu, egin, esan, lortu, argitaratu edo ematen duela. Berbarori buruz hitzegiteko, hirugarren pertsona erabili ohi dugu. Gehinetan, konturatu ere ez gara egiten gauza horrek guztiak Berbaroko bakideak eta bertan lanean diharduenak egiten dutela. Berbaroko bazkidea nahitaezkoa da saltsa honetan. Normalean ez zaio meriturik aitortzen, ez zaio eskerrak ematen, ezta egindako lana azpimarratzen ere. Baina, jakin badakigu bazkidea elkartean gaiza eta piperra dela eta hari zor zaiola Berbarororen inguruko ona eta txarra, baina batez ere ona.

Euskararen alde zerbait egin nahi duenak beti izango du Berbaron lekutxoaren bat. Azpialde desberdinak dauzkagu eta guztietan gaude lagunak noiz etorriko zain.

Kultura-arloko ekintzen antolaketan parte hartu nahi duenak hor du Kultura azpialdea: erakusketak, antzerki edo poesia emanaldiak, kantaldiak, bertso eta kantu afariak eta abar luze batean ibiltzeko aukera izango du.

Gaszte euskaldunekin irteerak, ikastaroak, kanpainak eta gazteen artean egin daitezkeen hainbat gauza egitea gogoko duenak hor du Guezan ba! gazte-taldea.

Euskararen erabilera bultzatzeko ekintzak asmatu, antolatu edo egin nahi dituenak hor du Sentsibilizazio azpialdea.

Itzulpenak, boletinak, graffitiak, parrandak, ikerketak, inkestak eta abar gustuko dituenak hemen du Berbaro.

LARROSA


ERAZek 100. alea kaleratu du. Duela hiru urte jaio zen proiektu aberatsa pertsona gutxi batzuen lan gogorrari esker sendotuz joan da eta



gaur egun heldutasuna lortu duela esan daiteke. Jakin badakigu une latzak bizi dituela, horrexegatik, lortutakoak daukan balioa azpimarratu behar dugu. Zorionak eta eskerrik asko ERAZi.

ARANTZA

Durangoko Udalak ekonomilari-plaza sotu eta lehiaketa bidez betetzeko asmoa du. Ekonomilari-lanpostuak garrantzi handia du Udalaren funtzionamenduan. Horregatik,



garrantzi horrekin bat datorren euskara-maila ezarri zaio, laugarren hizkuntza eskakizuna, hain zuzen ere.

Baina, ez zaio derrigortasunik jarri. Horrek esan nahi du lanpostua beteko duenak ez daukala zertan euskara jakin ezta ikasi ere.

Zelan pasau dok udie ba?

Ieup!
Seguru gurie baino hobie ez izen. Terrible izen dok, txo! Kanpamendue kriston exitazue. Gabatxo danak flipetan itxi doguz. Kañoñek bajeu, neoprenuaz ta buruen kasko handi batatz, hormak rapelau, superbibentzixe eiñ, han erdi galdute ta gosiek trageu biherrien, trikibertso afarixen jo ta fuego bertso ta kantu ibili, rokeruekin salto batzuk emon, tienda-kanpañie monte u, tienda-kanpañie desmonteu, ibili, ibili, ta gehixau ibili. Han eztu eukiñ iñungo lujorik eta euki doguzen lau geuzok, geuk prepareu doguz camping-gasien. Momentu txarretan ikusten da koziñero ona nor dan: Arguinaño II.a eta Subijana III.a topau doguz gure artein, Iker

Estankona eta Oier Gonzalez. Pare bat hazur eustu izen ezik, ez da ezer graberik paseu.

Uda ostien, denok berriro elkartu asmoz, San Faustotan, afari txiki bat eittie pentsau geñun. Intentzinuek onak zien baiña,





holako gau zetan pasetan dan moduen, poltsikuek zaratarik eitten ez dauenien ez dau zeregiñik. Arzak-enien afarixe ahaztu ta Eraz-eko txosnan solomo eta tortilla bokatak jan gañuzen; baiña bai, hori bai, gusttora ta lagunartien.

Afariko resakie kentzeko edo, errekan bañutxo bat emotie pentsau geñun. Pentsau bakarrik ez, pentsau ta eiñ. Bost egur zati ta hiru neumatiko zahar hartu eta kriston kruzerue! San Anako bajadan polittena ta osorik heldu zan bakarra Ourdaibykiek abordeu arren. Jente pillue batu zaben bajadiiek baiña, udaletxiek txakur txikirik bez!!! Hi, ganera kontenedorerik be ez dozkuen ipini ondarrak botateko.

Hurrengo boletiniñen berri gehixau agertuko diezen arren, hemen dozuez gure proiektu batzuk: antzerki ikeragarri dibertidue, zapatuetan Durengon egoten dan moduko plazie, Euskal Telebistagaz relaziñuek estutu, izen be geti esan deuzkue plan-ta onekuek garela eta bla, bla, bla...

Bueno, beste barik, agur esatea baiño ez jaku geratzen. Hi, adi ekintzekin! Eta parte hartu gure badok, hemen geuzek!!!

ORAINDIK ERE HAURRENDAKO KAMISETAK DITUGU SALGAI. ETORRI BERBARORA!



HAU POZA ERAZKO NESKAK HARTU DUTENA, LOKAL BARRIA LORTZEAN. ZUZENDARIA IKUSTEA BESTERIK EZ DAGO.

Egizu bazkide lagun edo ezagunen bat

Izen abizenak:.....
 Helbidea:..... Telefonoa:..... Jaiotze data:.....
 Lantegia/ikastetxea:..... Telefonoa:.....
 Bankua:..... Zenbakia:.....